



# MasterChef Junior 11 lehiaketarako oinarriak BBVArekin lankidetzan

2024ko maiatza

## LEHIAKETAREN IZENA

BBVA-MASTERCHEF JUNIOR (aurrerantzean, LEHIAKETA) deituriko lehiaketa SHINE IBERIA, S.L.U-k (aurrerantzean, SHINE IBERIA) antolatu du, bere egoitza Mira Ceti kalea 1, 28023 Madril da eta IFK B-86122769. Lehiaketa BBVAren web-orrian ostatatuko den landing page espezifiko batean egingo da.

## LEHIAKETARI APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK

Lehiaketa arau partikular hauen bidez arautzen da, eta eskuragarri daude <https://www.bbva.es> helbidean.

Arau hauetan jasotako edozein bide erabilita parte-hartze soilak arau horiek baldintzarik gabe onartzea dakar.

SHINE IBERIAK beretzat gordeko du lehiaketatik at uzteko lege-oinarriak betetzen ez dituen edozein lehiakide prozesuaren edo LEHIAKETAREN edozein unetan.

## LEHIAKETAREN XEDEA

LEHIAKETAREN helburua da **MasterChef Junior 11 programarako aurrez aurreko castingerako zuzeneko hiru baimen eta MasterChef kanpamentuetarako doako hamar plaza ematea, zeinak arribeko urtean gozatu beharko diren.**

## LEHIAKETAREN HAUTAKETA-PROZESUAREN IRAUPENA

LEHIAKETAREN ebazpenerako prozedura 2024ko ekainaren 3tik 2024ko ekainaren 30era egingo da.

## LEHIAKETAREN MEKANIKA

Lehiaketako partaideek kopia egin beharko dituzte MasterChef World aplikazioan gordetako hiru errezeta eta haien legezko ordezkariak argazki formatuan igoko dituzte Instagram sare sozialeko beren profil propioetara etiketa (hashtag) honekin **#BBVAyMCJunior** eta aipamena eginez **@bbva\_espana** eta **@masterchef\_es** kontuei.

BBVAren web-orri ofizialean ostatatutako *landing page* baten bidez garatuko da lehiaketa, eta partaide bakoitzaren legezko ordezkariak formulario bat bete eta lehiaketara sartzeko oinarriak onartu beharko ditu. Formularioak honakoak eskatuko ditu: harremanetarako telefono-zenbaki bat, haurraren legezko ordezkariaren helbide elektronikoa eta gurasoen eta/edo guraso-ahala dutenen eta/edo legezko ordezkariaren izenak eta bi abizenak eta kopiatutako errezetaren argazkia duen [BBVA eta MasterChefen profilak ere aipatuko dira #BBVAyMCJunior etiketaren (hashtag) bidez] Instagram sare sozialeko profila.

LEHIAKETAREN irabazleak hautatzea SHINE IBERIAren casting-taldearen ardura izango da, eta baita SHINE IBERIAren Zuzendaritza komertzialeko arduradunena ere.

Aurrez aurreko *casting*erako zuzeneko baimenen kasuan, SHINE IBERIA harremanetan jarriko da irabazleekin eta jakinarazi egingo die aurrez aurreko castingera aurkezteko prozedura. Telebista-saioan parte hartuko duten haurren azken hautaketari dagokionez, LEHIAKETAREN bidez denboraldiaren aurrez aurreko *casting*erako zuzeneko hiru baimenen irabazleek ez dute gozatuko bestelako ezein abantailez, ohiko prozeduraren bidez aurrez aurreko casting berera iritsi diren haurrei dagokionez.

MasterChef kanpamentuen kasuan, irabazle bakoitzak % 100eko deskontua duen kode bat jasoko du, trukatzeko-datan eskuragarri dauden kanpamentuetako batean astebeko iraupenagatik plaza batez trukatzeko (sariak ez du barne hartuko kanpamentua egingo den lekurainoko irabazlearen garraioa eta/edo haren familiarrena).

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

### 1. Aurrez aurreko castingerako zuzeneko hiru baimenen lehiaketarako:

Parte hartu ahal izango du 8 eta 12 urte arteko edozein pertsona fisikok (artatuko diren eskaeretan hurrek zortzi urte beteak izan beharko dituzte 2024ko irailaren 1aren aurretik eta 2024ko urriaren 15a baino lehen hamahiru bete gabe egon beharko dute). Funtsezko betekizuna da parte hartzeko adingabe horiek guraso edo tutoreen, edo kasuaren arabera, guraso-ahala dutenen edo legezko ordezkarien baimena izatea. Aipatutako heldu horiek izango dira parte-hartze horri dagozkion baimenak sinatzea arduratuko direnak eta espresuki men egin diote adingabekoen izenean, Parte hartzeko arau hauen edukari.

Hautagaiak (adingabekoek) legez bizi beharko dute Espainiako lurraldean eta NAN edo pasaporte indarrean izan beharko dute espainiarrak izatekotan; AIZ eta bizileku-baimena indarrean (LEHIAKETAN zehar eta hura amaitu arte) atzerritarrak badira.

Ezin izango dute parte hartu LEHIAKETAREN errealizazioan esku hartu duten guraso/tutore edo guraso-ahala dutenen adingabekoek, ezta adingabekoen guraso/tutore edo beren guraso-ahala dutenak edo legezko ordezkariak SHINE IBERIAko edo BBVAko langileak direnean, ezta zerbitzuak hornitzen dituzten enpresetako langileak direnean edo beste pertsona batzuk, zeinak harremana duten, zuzenean edo zeharka, LEHIAKETAREN antolakuntzarekin eta haien familiarrekin bigarren mailara arte, ezkontza-ahaide edo odol-ahaidetasuna izateagatik. Parte-hartzea esplizituki debekatuta dutenen laguntzarekin parte hartu duten adingabekoen edozein partaidetza baliogabetu ahalko da, edo adingabekoak hemen adierazitako filiazio-inguruabarren batean daudenean.

SHINE IBERIAk, lehiakideen arteko aukera-berdintasunaren mesedetan, beretzat gordeko du ezarritako betekizunak betetzen ez dituen, edo haren parte-hartzeak gainerakoekin alderatuta abantaila neurrigabea edo desoreka nabarmena suposatzen duen edozein adingabe (izangai/lehiakide) ukatzeko eskubidea.

### 1.1 Aurrez aurreko castingean parte hartzeari dagokionez eskubideen lagapena:

Guraso/tutoreek eta adingabekoen (partaide eta/edo lehiakideak) gain guraso-ahala edo legezko ordezkariak oinarri hauek onartuta beren esanbidezko adostasuna emango diote amaieran PROGRAMA (MasterChef Junior 11) emango duen KATEARI, hots, CORPORACION DE RADIO Y TELEVISIÓN ESPAÑOLA S.A., S.M.E., eta SHINE IBERIARI, bereizi gabe, adingabeari dagokionez, haren irudi, izen eta/edo ahotsa (PROGRAMAREN esparruan grabatu den moduan) erabili ahal izan dezaten. Ondorioz, SHINE IBERIA eta KATEAK ahalmen osoa izango dute, haien kabuz edo hirugarren bati lagatuz, horiek igortzeko, izan osorik, izan partzialki, denbora- edo lurralde-mugarik gabe. Horren arabera, Partaideak baimena edo esanbidezko adostasuna ematen du egindako grabazio oro erreproduzitu eta publikoki komunikatzeko, horiek eskura jartzea barne hartuz, eta baita izena eta irudia erabili eta erreproduzitzeko ere, eta grabatzen diren irudiak igortzeko. Irudi horiek publikoarentzat eskuragarri egon litezke Internet bidez eta/edo telebista analogiko, digital, kable edo satelite bidezko, doako edo pay per view motako edozein plataformatan; edozein motatako merchandising eta/edo produktu eratorriren ekoizpena.

Horretarako, guraso/tutoreek, duten ordezkartzan, hemen adierazitako eskubideen lagapena erregulatzeko beharrezko diren dokumentu oro sinatuko dituzte, eta baita beste betekizun eta partaidetzari dagozkion gainerako alderdiak ere.

## **MasterChef kanpamentuetako doako hamar plazen lehiaketarako:**

Parte hartu ahal izango du 8 eta 17 urte arteko edozein pertsona fisikok (artatuko diren eskaeretan hurrek zortzi urte beteak izan beharko dituzte 2024ko irailaren 1aren aurretik eta 2024ko urriaren 15a baino lehen hamazazpi bete gabe egon beharko dute). Funtsezko betekizuna da parte hartzeko adingabe horiek guraso edo tutoreen, edo kasuaren arabera, guraso-ahala dutenen edo legezko ordezkarien baimena izatea. Aipatutako heldu horiek izango dira parte-hartze horri dagozkion baimenak sinatzeaz arduratuko direnak eta espresuki men egin diote adingabekoen izenean, Parte hartzeko arau hauen edukari.

Hautagaiak (adingabekoek) legez bizi beharko dute Espainiako lurraldean eta NAN edo pasaportearen indarrean izan beharko dute espainiarrak izatekotan; AIZ eta bizileku-baimena indarrean (LEHIAKETAN zehar eta hura amaitu arte) atzerriarrak badira.

Ezin izango dute parte hartu LEHIAKETAREN errealizazioan esku hartu duten guraso/tutore edo guraso-ahala dutenen adingabekoek, ezta adingabekoen guraso/tutore edo beren guraso-ahala dutenak edo legezko ordezkariak SHINE IBERIAko edo BBVAko langileak direnean, ezta zerbitzuak hornitzen dituzten enpresetako langileak direnean edo beste pertsona batzuk, zeinak harremana duten, zuzenean edo zeharka, LEHIAKETAREN antolakuntzarekin eta haien familiarrekin bigarren mailara arte, ezkontza-ahaide edo odol-ahaidetasuna izateagatik. Parte-hartzea esplizituki debekatuta dutenen laguntzarekin parte hartu duten adingabekoen edozein partaidetza balio gabetu ahalko da, edo adingabeok hemen adierazitako filiazio-inguruabarren batean daudenean.

SHINE IBERIAk, lehiakideen arteko aukera-berdintasunaren mesedetan, beretzat gordeko du ezarritako betekizunak betetzen ez dituen, edo haren parte-hartzeak gainerakoekin alderatuta abantaila neurrigabea edo desoreka nabarmena suposatzen duen edozein adingabe (izangai/lehiakide) ukatzeko eskubidea.

SHINE IBERIAk eta BBVAk egindako partaideen eta legezko ordezkarien datu pertsonalen kudeaketa beherago adierazitako "Datuen babesa" klausulan xedatutakoaren bidez arautuko da.

## **DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA**

Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrean (DBEO) xedatutakoa eta Izaera Pertsonaleko Datuak eta Eskubide Digitalen Bermeen Babeserako 3/2018 Lege Organikoa betetz, Shine IBERIA SLUK castingeko partaide eta beren legezko ordezkariak jakinaraziko die haien datu pertsonalen tratamendua, Shine Iberia SLU izango delarik egindako castinga dela eta bildutako datu pertsonalen arduraduna.

**1. helburua:** LEHIAKETAKO partaidetza kudeatzea formularioa kudeatuta.

SHINE IBERIAk tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, formularioaren bidez bildutako informazioari dagokionez.

BBVAk sarbidea izango du BBVAren titulartasuneko den eta lehiaketan izena emateko webgunean gaitutako formularioaren bidez bilduko diren identifikazio-datuak eta "tratamenduaren arduradun" gisa jokatu du, datu horiek ezingo dituelarik erabili helburu propioetarako eta/edo oinarri hauetan adierazitakoak eta SHINE IBERIAri lankidetzaren ematekoak ez diren beste batzuetarako.

Legitimazio-oinarria: Tratamendu hau legitimatzen duen oinarri juridikoa da oinarri hauek onartzean gertatzen den kontratuzko egikaritzea (6.1.b artikulua).

Hartzaileak: Gainera, adingabekoen ordezkariak espresuki baimena ematen badu horretarako gaitutako formularioaren lauki espezifikoa, SHINE IBERIAk BBVAri jakinaraziko dizkio ordezkari horren datuak (izena, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa), BBVAk bide elektronikoa erabilita adingabekoei bideratutako finantza-produktu eta promozioei buruzko jakinarazpenak bidaltzeko. BBVAk datu pertsonalen tratamenduaren inguruan behar bezala jakinaraziko dizu, DBEOren 14. artikulua eskakizunen arabera eta ez ditu adingabekoen datuak tratatuko. BBVAk aipatutako partaide horien legezko ordezkariekin harremanetan jartzeko beharrezkoak diren datuak soilik jakinaraziko dira. Datu horiek BBVAri eman ostean, hura "tratamenduaren arduradun" berria izango da, adierazitako baldintzetan adostasuna eman duten partaideengana zuzenduko dena.

**2. helburua:** castingean parte hartzea eta LEHIAKETAKO hautaketa-prozesu eta egikaritzearen garapenean erabiltzea, edo lehiakide gisa aukeratua izanez gero, lehiaketaren ondoriozko ondorengo jardueretan parte hartzea.

Datu-kategoriak: sukaldaritza munduarekin erlazionatutako telebistako talent show bateko castinga denez, identifikazio-datuak, gustuak, interesak, zaletasunak eta partaideak hautatzea ahalbidetuko duen bestelako informazioa eskatuko da.

Haurren casting bat denez, partaideen aita/ama/tutore/legezko ordezkariak emango dituzte adostasun eta baimenak.

Parte hartu nahi den PROGRAMA mota dela eta, ezagutzera eman litezke ideologia, erlijio edo sinismenen inguruko datuak; ez zaude behartuta datu horiek jakinaraztera eta SHINE IBERIAK ez ditu espresuki jasoko, baina borondatez SHINE IBERIAri datu horiek jakinaraziz gero, tratamenduaren objektu izan litezke, eta zuk horretarako esanbidezko adostasun osoa emango duzu. Horri dagokionez, eta "eskubideak" atalean jakinarazi bezala, borondatez eman duzun edozein daturi buruzko zure adostasuna atzera bota ahal izango duzu beti. Horrez gain, jakinarazten dizugu hautaketa-prozesuan, interesa izan dezakegula eskatu dizkizugun sare sozialetako profiletan garatzen duzun jardueran eta hori ere borondatez eman ahal izango duzu.

SHINE IBERIAri hirugarrenen (familiarrak, bikotea, lagunak, etab.) datu pertsonalak emanez gero, dokumentu hau sinatuta, bermatzen duzu aurrez haiei jakinarazi diezula eta horretarako baimenduta zaudela, dokumentu honetan aurreikusitako baldintza eta helburu beretan.

Legitimazio-oinarria: Tratamendu hau legitimatzen duen oinarri juridikoa parte hartzeko esanbidezko adostasuna da (DBEOren 6.1.a artikulua) eta parte-hartzerako beharrezkoak ez diren eta eskatzen ez diren datuak ezagutzera ematea (9.1.a artikulua), kontratuzko egikaritzea oinarri hauek onartzean (6.1.b artikulua), eta baita SHINE IBERIAK bere jardueraren objektua, programen ekoizpena, garatzeko duen interes legitimoa ere (6.1.f artikulua).

**Hartzaileak:** Datuen hartzailea SHINE IBERIA enpresa bera izango da eta, halaber, jakinarazten dizugu bildutako datuak jakinarazi ahal izango zaizkiola CORPORACIÓN DE RADIO Y TELEVISIÓN ESPAÑOLA SOCIEDAD ANONIMA S.M.E.-ri (KATEA), aurrez adierazitako helburu berekin. Ekoizpenerako castingaren egikaritzearen testuinguru berean, datuak gure aseguru-etxeari jakinarazi ahal izango zaizkio.

Era berean, datuak eskuragarri egongo dira castinga eta PROGRAMAREN logistika antolatu eta gauzatzeko beharrezko zerbitzuen enpresa hornitzaileetarako (tratamenduaren arduradunak), horiekin sinatuta baititugu dagozkien akordioak. Castinga Short Audition plataformaren bitartez egingo da, zeinak biltzen dituen beharrezko segurtasun-bermeak eta Israelen dagoen, Europar Batzordearen Onespen Erabaki bat duen herrialdean, datu pertsonalei dagokienez.

Ez da aurreikusten indarrean den araudiaren arabera segurtasun eta pribatutasun berme egokirik ez duten herrialdeetarako datuen nazioarteko transferentziarik.

**Kontserbazioa:** Tratamendu hauek beharrezko iraupena izango dute casting prozesua amaitu arte, edo programa beraren beste edizio batzuetarako datu pertsonalak kontserbatzea ahalbidetzen duen laukia markatu baduzu, horiek ezeztatzea eskatu bitartean kontserbatuko dira datu pertsonalak, eta edozein kasutan, gehienez 5 urteko epean. Lehiakide gisa aukeratua izaten bada, bere datuak SHINE IBERIArekin erlazioa kudeatzeko beharrezko denboran zehar kontserbatuko dira, eta betebeharrak legal, fiskal edo administratibo beharrezkoak betetzeko beharrezko ondorengo denbora osoan.

Eskubideak: Eskubide hauek erabil ditzakezu: sarrera, zuzenketa, ezabatzea, aurka egitea, mugatzea, eta eramangarritasuna. Horretarako, idatzi bat egin beharko duzu "Datuen babesa" erreferentziarekin izendatuta, zure eskaera zehaztuta, Shine Iberiaren posta-helbidera bideratuz edo honako helbide elektronikoa honetara: [privacidad@banijayiberia.com](mailto:privacidad@banijayiberia.com). Eskatzailearen nortasunaren inguruko zalantzarik izanez gero, identifikazio-dokumentua eskatu ahal izango da. Era berean, jakinarazten dizugu eskubidea duzula erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian. Hala ere, intimitate eta pribatutasunaren errespetuarekiko gure konpromisoak errespeturik handiena izatea agintzen digu datu pertsonalen eta horien segurtasunari dagokienez.

Azkenik, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Ordezkaria izendatu dugula, eta harekin harremanetan jar zaitezkeela [privacidad@banijayiberia.com](mailto:privacidad@banijayiberia.com) helbidean.

Era berean, emandako datuak izan dezaketen edozein aldaketa jakinaraztea eskatzen dizugu, horiek beti eguneratuta izan ahal izateko.



#### **OINARRIEN ALDAKETA ETA LEGE APLIKAGARRIA**

LEHIAKETA honetan parte hartzeak suposatzen du espresuki onartzen oinarri hauek eta men egitea espresuki SHINE IBERIAk horien inguruan egindako interpretazio-erabakiei.

Lehiakidearen eta SHINE IBERIAren artean desadostasunik balego oinarri hauen interpretazioari buruz, aplikagarria izan litekeen eskumen juridikzionalaren alorreko Legeak ezarritako aginduzko xedapena salbu, eskudunak izango dira Madrilgo hiriko Epaitegi eta Auzitegiak sor litezkeen auziak ezagutzeko.

#### **ERREKLAMAZIOEN ARRETA**

Adingabeen (partaide/lehiakideak) guraso/tutore edo guraso-ahal dutenek beren erreklamazioak egin ahal izango dituzte lehiaketari dagokionez, idatzi bat bidaliz SHINE IBERIA, S.L.Uri, bere egoitzara: Mira Ceti kalea 1, Madril (28023).

Madriren, 2024ko maiatzaren 17an